

Lagun agurgarria,

Idatzi honen bitartez, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK 2011-2012 ikasturterako antolatu duen garraio zerbitzuaren berri eman nahi dizugu.

Honi atxikita igortzen ditugu garraio-lerroaren geltoki eta ordutegiak, baita dauden aukeren urteko tarifak ere.

Prezioak iazko berak dira dagokion KPIa aplikatuta.

Garraio zerbitzuan izena emateko epea **irailaren 1etik 14rarte izango da** eta interesa izanez gero matrikulatuta zauden Fakultatean egin beharko duzu izen-ematea.

Printzipioz, zerbitzuaren erabiltzaile izateko baldintza hau bete beharra dago: **ikasturte osorako konpromisua** hartzea. Alegia, autobusaren erabiltzaileak ezin dio nahi duenean zerbitzuari uko egin, ikasturte osorako "txartela" delako.

Dena den, jakin badakigu hainbatek praktikak edota karrera amaierako proiektua egingo dituzuela hainbat hilabetetan zehar eta ondorioz ez duzuela garraio zerbitzu honen beharrik izango. Kasu horietan soilik izango da posible hilabete horietan "baja" ematea zerbitzuan.

Hala ere, beste arrazoiren batengatik baja emanez gero, geratzen diren kuoten %40a ordaindu beharko da.

Garraio zerbitzuan interesik izanez gero edota edozein zalantza izanez gero, zure Fakultateko idazkaritza akademikora jo dezakezu.

Zerbitzu honek zure beharrak beteko dituenaren esperoan, jaso ezazu agur bero bat,

Estimado amigo,

Mediante esta carta, queremos informarte acerca del servicio de transporte que ha organizado MONDRAGON UNIBERTSITATEA para el curso 2011-2012.

Te adjuntamos las paradas y horarios así como las distintas opciones y tarifas.

Los precios son los mismos que el curso pasado, una vez aplicado el correspondiente IPC.

El plazo de inscripción para el servicio de transporte será **del 1 al 14 de septiembre** y en caso de estar interesado, deberás realizar la inscripción en la Facultad en la que estés matriculado.

En principio, para ser usuario del servicio es preciso adoptar el **compromiso para todo el curso**. Es decir, el usuario del autobús no puede darse de baja cuando lo desee, ya que se trata de un "carnet" para todo el curso.

No obstante, algunos de vosotros realizaréis prácticas y/o el proyecto fin de carrera durante algunos meses, y por consiguiente no necesitaréis el servicio de transporte. Tan sólo en esos casos es posible darse de baja en el mismo.

Aún así, en caso de darse de baja por otras razones, el usuario deberá abonar el 40% del importe de las cuotas restantes.

En caso de que estés interesado en el servicio de transporte o tengas alguna duda al respecto, acude a la secretaría académica de tu Facultad.

Esperando que este servicio dé respuesta a tus necesidades, recibe un cordial saludo,

Urteko tarifak (8 zatitan kobratuko dira, urritik maiatzera bitartean)**Tarifas anuales (se cobrarán en 8 cuotas, de octubre a mayo)**

Ikasleak 4 aukera hauetatik bat aukeratu beharko du:

El alumno deber de seleccionar una de las 4 opciones siguientes

- A) Autobus zerbitzua egunero erabiltzea, astelehenetik ostiralera, joan-etorria egiteko (egunean birritan erabiliko lukete);
Utilización diaria del autobús, de lunes a viernes, ida y vuelta (es decir, 2 viajes al día)
- B) Autobus zerbitzua egunero erabiltzea, astelehenetik ostiralera, baina bakarrik egunean behin (fakultatera etortzeko edo bueltatzeko)
Utilización diaria del autobús, de lunes a viernes, tan sólo una vez al día (para acudir a la facultad o volver)
- C) Astean 2 aldiz erabiltzea autobus zerbitzua, astelehenetan Unibertsitatera etortzeko eta ostiraletan etxera bueltatzeko.
Utilización del autobús 2 veces por semana, los lunes para llegar a la Universidad y los viernes para volver a casa
- D) Astean behin erabiltzea autobus zerbitzua, bakarrik astelehenetan etortzeko, edota ostiraletan bueltatzeko.
Utilización del autobús una vez por semana, los lunes para llegar a la Universidad o los viernes para volver a casa.

Aukera bakoitzarentzat, ondorengo tarifak aplikatuko dira:/Se aplicarán las siguientes tarifas para cada opción:

Azpeitiako lerroa:/Línea de Azpeitia (Unibertsitateko garraio zerbitzua)

Herria	Kopurua urteko			
	"A" Aukera	"B" Aukera	"C" Aukera	"D" Aukera
Azpeitia-Arrasate	1.524€	762€	387€	194€
Azpeitia-Eskoriatza	1.764€	1.002€	483€	242€
Azpeitia-Oñati	1.764€	1.002€	483€	242€
Azkoitia-Arrasate	1.524€	762€	387€	194€
Azkoitia-Eskoriatza	1.764€	1.002€	483€	242€
Azkoitia-Oñati	1.764€	1.002€	483€	242€
Elgoibar-Arrasate	889€	445€	223€	117€
Elgoibar-Eskoriatza	1.129€	685€	319€	165€
Elgoibar-Oñati	1.129€	685€	319€	165€
Eibar-Arrasate	773€	390€	197€	100€
Eibar-Eskoriatza	1.013€	630€	293€	148€
Eibar-Oñati	1.013€	630€	293€	148€
Arrasate-Eskoriatza (Goizeko eta iluntzeko autobusean. Eguerdian ez dago aukera hau)	-	240€	96€	48€
Arrasate-Oñati (Eguerdiko autobusean Oñatira joateko eta bertatik bueltatzeko. Goizean eta iluntzean ez dago aukera hau)	-	240€	96€	48€

Bilbo Arrasate lerroa: / Línea de Bilbao Arrasate (Lerro publikoa)

Mondragon Unibertsitateak orain arte lerro hau izan duen arren, 2011-2012 ikasturtetik aurrera bertan behera geratuko da, Gipuzkoa eta Bizkaiako Aldundiek garraioaren inguruan adostutakoaren arabera, zerbitzu publiko bat egongo baita Bilbotik Arrasatera joan-etorrirako.

Azpiko taulan ikus daitezke Bilbo-Arrasate lerroaren erabileraren tarifak:

Herria	Kopurua bidaia bakoitzeko	
	Tarifa arrunta	Tarifa Creditrans-ekin
Bilbo	3,20€	2,35€
Iurreta	1,3€	1,05€
Durango	1,3€	1,05€
Abadiño	1,3€	1,05€
Atxondo	1,15€	0,90€
Elorrio	1,15€	0,90€

Arrasatetik Eskoriatzara eta Oñatira joateko, garraio publikoa erabili behar denean, horren tarifa arrunta 1,21€ dira eta LURRALDEBUS txartelarekin, berriz, 0,73€.

Oharra: irailean zehar ordutegi eta geltokietan aldaketa txikiak egon daitezke, zerbitzua ikasleen beharretara hobeto egokitu asmoz.

Aviso: *a lo largo de septiembre los horarios y paradas establecidos pueden experimentar pequeñas modificaciones, con objeto de adaptarlos mejor a las necesidades de los alumnos*